Getariako Udala

Esp.: 2021IDDE0002

GETARIAKO UDALA

## GETARIAKO HERRIAN 18 ETA 35 URTE BITARTEKO ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA.

*Iragarkia*

Udalbatzarrak 2021eko uztailaren 27an egindako osoko bilkuran hasierako onespena eman zion Getariako herrian 18 eta 35 urte bitarteko adina duten gazteei etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak ematea arautuko duen oinarri arautzaileei.

Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

ERABAKI DU:

LEHENA.- Onartzea Getariako udalerrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza lerroaren oinarri arautzaile orokorrak (ERANSKINA).

BIGARRENA.- Ordenantza 30 eguneko epean jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 30 lan-egunetan. Inolako erreklamazio edota iradokizunik jasotzen ez badira, aldaketak behin betiko onartutzat ematen dira. Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da arau-oinarrien testu osoa.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurreko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte.

Getaria, 2021eko uztailaren 28a.—Alkatea.

GETARIAKO UDALA

## ORDENANZA REGULADORA POR LA QUE SE ESTABLECE LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA A JÓVENES DE ENTRE 18 Y 35 AÑOS EN EL MUNICIPIO DE GETARIA.

*Anuncio*

El Ayuntamiento en Pleno en la sesión celebrada el día 27 de julio de 2021, aprobó inicialmente la ordenanza reguladora por la que se establece la concesión de ayudas para alquilar la vivienda a jóvenes de entre 18 y 35 años en Getaria.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local,

ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar las bases reguladoras generales de las subvenciones para el alquiler de vivienda para jóvenes del municipio de Getaria (ANEXO).

SEGUNDO.- Dicha ordenanza queda sometida a información pública durante 30 días hábiles, a partir del próximo día de publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en caso de que no se presente alegación o reclamación alguna, las modificaciones quedan definitivamente aprobadas. De acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de las bases mencionadas.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio. En ese caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición o hasta su desestimación presunta.

Getaria, a 28 de julio de 2021.—El alcalde.

ERANSKINA

Getariako Udala

**Esp.:** 2021IDDE0002

GETARIAKO UDALA

*Iragarkia*

GETARIAKO HERRIAN 18 ETA 35 URTE BITARTEKOA ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK

ZIOEN AZALPENA

Azken urteotako egoera ekonomikoak inoiz baino kinka larriagoan jarri du gaurko gazteriaren lan egoera prekarioa, bai soldata aldetik baita tenporalitatearen aldetik ere.

Getariako etxebizitzen egoerak kezka sortzen du. Izan ere, Getariako etxebizitza merkatua mugatua da, alokairu eskaintza txikia dago eta prezio altuekin, baita pisu turistikoen gorakada, eta etxebizitza huts kopuru altua.

1. Helburu zehatza

Dagokigun honek xedea da Getariako herrian etxebizitzen alokairurako diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea.

Azken helburu bezala du:

- 18 eta 35 urte bitarteko (biak barne) gazte getariarrei dirulaguntza ematea, bereziki beren emantzipazio bidean.
- Bereziki gazteei euren emantzipazio bidean laguntzea.
- Modu orokorrean, Getaria herrian alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea

Dirulaguntza hori oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak gutxienez 12 hilabetetan izandako alokairu gastua kontuan hartuta eta betiere, baldintza horiek denbora tarte horretan mantentzen badira.

Laguntzatik kanpo geldituko dira kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak, baita dagokion kontratuan berariaz sartuta baleude ere.

Eusko Jaurlaritzak urtero onartzen dituen alokairurako laguntzak, Gaztelagun, udal laguntza hauek baino lehentasun handiagoa izango dute. Beraz, Getariako Udalaren laguntzaren eskatzaileak derrigorrez eta lehentasun izaerarekin (udal laguntzaren eskaera egin aurretik hain zuzen ere) tramitatuta izan beharko du Gaztelagunen laguntza, eta hura ez badu lortzen bakarrik izango du udal laguntza hau jasotzeko eskubidea.

AYUNTAMIENTO DE GETARIA

*Anuncio*

BASES REGULADORAS GENERALES DE LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA A JÓVENES DE ENTRE 18 Y 35 AÑOS EN EL MUNICIPIO DE GETARIA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La situación económica de los últimos años ha puesto en apuro, más que nunca, la precaria situación laboral de la juventud: tanto en términos salariales como en términos sobre su temporalidad.

La situación de las viviendas de Getaria preocupa. De hecho, el mercado de viviendas de Getaria es limitado, hay poca oferta de alquiler y con precios altos, así como el aumento de los pisos turísticos, y el alto número de viviendas vacías.

1. Objeto exacto

La presente tiene por objeto la aprobación de las bases que regularán las ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Getaria.

Tiene por finalidad última:

- Conceder una ayuda económica a jóvenes de Getaria de entre 18 y 35 años (inclusive) en su proceso de emancipación.
- Apoyar especialmente a los jóvenes en su proceso de emancipación.
- Promover con carácter general el acceso a una vivienda en régimen de alquiler en el municipio de Getaria.

La subvención se realizará según las condiciones establecidas en las presentes bases, para el gasto de alquiler asumido por el beneficiario durante un mínimo de 12 mensualidades, y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante dicho periodo de tiempo.

A efectos de los dispuesto en la normativa, queda excluido del concepto de alquiler las contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

El programa de ayudas al alquiler aprobado por el Gobierno Vasco Gaztelagun, será prioritaria a la presente ayuda municipal. El solicitante deberá haber tramitado necesariamente y con carácter prioritario a la resolución de la ayuda municipal, la indicada ayuda de Gaztelagun, y sólo en caso de su no otorgamiento tendrá derecho a la concesión de la presente ayuda municipal.

Gaztelagunen laguntza (https://labur.eus/xaAJe) derrigorrez tramitatu behar hori salbuetsita egongo da, hain zuzen ere, udal laguntzen organo kudeatzaileak izaera objektiboz zehazten baldin badu eskatzaileak ez lituzkeela beteko inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak. Irizpide bera mantenduko da etxebizitza laguntza osagarrien kasuan (Lanbide) eta Eskubide Subjektiboko Prestazioaren kasuan ere.

La obligatoriedad de la tramitación de la ayuda de Gaztelagun (https://labur.eus/xaAJe) quedará exceptuada en el caso que el órgano gestor de la ayuda municipal determine con carácter objetivo que el solicitante en ningún caso cumpliría con las bases de las ayudas del Gobierno Vasco. Se mantendrá el mismo criterio para las ayudas complementarias de vivienda (Lanbide) o Prestación por Derecho Subjetivo.

## 2. Finantzazioa

Deialdi honetan araututako diru- laguntza ekonomikoak emateko igorritako kredituaren zenbatekoa 2200.480.152.00.01 2021 partidan zehaztutakoa izango da, 20.000,00€koa.
Banatzeko diru-laguntzen zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen badu, zenbateko hori diru-laguntza guztien artean proportzionalki banatuko da.

## 2. Financiación

La dotación económica para la concesión de subvenciones reguladas en la presente convocatoria será la señalada para la partida 2200.480.152.00.01 2021 de 20.000,00€.
En caso de que el importe total de las subvenciones a conceder supere la cantidad consignada en la partida presupuestaria correspondiente, el Ayuntamiento podrá proceder al prorrateo de esta entre todas ellas.

## 3. Organo eskuduna

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Udalbatza Osoa da (Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluek dioenaren arabera).

## 3. Órgano competente

El órgano competente para la aprobación de las presentes bases el Pleno municipal (de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2.d. y 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local).

## 4. Herritar onuradunak

Diru-laguntza hauek ematea bera, eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa, oinarri hauek eta dirulaguntzak ematen direnean indarrean den araudiak aginduko ditu.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte diru-laguntzak:
- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Diru-laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.

Indarrean dagoen aurrekontu ekitaldiaren kargura emango diren diru-laguntzen onuradunak izango dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta epean, ondorengo baldintza zehatzak beteko dituzten pertsona edo Familia Unitateak, zeinak ondorengoak bete behar dituen:

1.- Onuradunak.

- Pertsona fisikoak, banaka nahiz familia unitate batean bilduta, baldin eta oinarrietan jasotako baldintzak betetzen badituzte.
- Agindu honen ondorioetarako, familia unitateak dira ezkontza bidez elkartuta dauden pertsonak edo izatezko bikote erregistratuak, eta, hala

## 4. Ciudadanos beneficiarios

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Además de lo establecido en estas bases, esta subvención será regulada por:
- Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre
- Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio

Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas con cargo al ejercicio presupuestario vigente, las personas o unidades familiares que, a la fecha de publicación de las presentes bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y durante el periodo subvencionable, que cumpla lo siguiente:

1.-Personas beneficiarias.

- Las personas físicas, tanto a título individual o como agrupadas en una unidad familiar, que cumplan los requisitos previstos en el presente artículo.
- Constituye una unidad familiar, a los efectos de la presente Orden, las personas unidas en matrimonio o como pareja de hecho registrada, y

badagokio, beren ardurapean dauden seme-alabak, bai eta guraso bakarreko unitateak eta beren ardurapeko seme-alabak ere.

en su caso, los hijos e hijas a su cargo, así como las unidades monoparentales formadas por un único padre o madre y los hijos e hijas a su cargo.

- Eskatzaile bakoitza bizikidetza unitate independentea izango da familiarrak ez badira edo hala frogatu ez bada, eta kontratua sinatu duten guztien artean banatuta konputatuko da errenta alokairua.

- Se considerará cada una de las personas solicitantes como una unidad convivencial independiente, en caso de que no justifiquen configurar una familia y por tanto, la renta de alquiler será computada de forma prorrateada entre cada una de las suscribientes del contrato

- Familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiek, seme-alaba adingabeek izan ezik, agindu honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

- Todas y cada una de las personas integrantes de la unidad familiar, salvo los hijos e hijas menores de edad, deberán cumplir los requisitos que se exigen en esta Orden.

2.- Laguntzaren onuradunak bete beharreko baldintzak

2.-Requisitos de los beneficiarios de la ayuda

- 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagundu daitekeen epean, Familia Unitatean kide diren menpeko adin txikikoak ez ezik. Diru laguntza hau, 36 urte betetzen diren hilabetearen aurreko hilabetera arte onartuko da.

- Tener una edad de entre 18 y 35 años a la fecha de publicación de las presentes bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y durante el período subvencionable, excepción hecha de los menores dependientes que cohabiten con la Unidad Familiar. La ayuda será reconocida hasta el mes anterior a aquel en que cumplan 36 años.

Adinari dagokion salbuespena egongo da, 18 urte beteta ez izan arren, beren kasa bizi diren gazte eta emantzipatuak. Getariako Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori nolakoa den.

Habrá una excepción referente a la edad, para jóvenes emancipados que no habiendo cumplido los 18 años viven por su cuenta. Esta situación deberá ser acreditada por los servicios sociales del Ayuntamiento de Getaria.

- Eskatzaileak edo Unitate Familiarreko kideetatik inork ez izatea beren jabetzan edota jabetza soilean etxebizitzarik, herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide diren kasuetan ezik, baldin eta titularkidetasun horren portzentajeak ez badu % 50 gainditzen eta etxebizitzetako partaidetzen balioa 75.000,00 eurotik gorakoa ez bada. Edota baldin eta ez badu egiaztatzen banantze edo dibortzio arrazoiengatik eskuragarri ez duela edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste arrazoiren batengatik ezin duela bertan bizi.

- Que ningún solicitante o miembro componente de la Unidad Familiar posea vivienda alguna en propiedad o nuda propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50% y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 75.000,00 euros. Y/o salvo que se acredite la no disponibilidad de la misma por causas de separación o divorcio, o no puedan habitarla por cualquier otra causa ajena a su voluntad debidamente acreditada.

- Dirusarreren osaketari dagokionez, amaitutako azken zerga ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da urtean 600,00 eurotik gorakoa izan.

- En cuanto a la composición de los ingresos, la cuantía de los rendimientos brutos derivados de rentas de capital del último ejercicio fiscal vencido no podrá superar en su conjunto la cifra de 600,00 euros anuales.

- Banandu edo dibortziatuen kasuan, diru sarreren zenbatekoa kalkulatzerakoan seme-alabengatiko mantenu pentsioa bai eta hipoteka kargei dagokien hileroko kuoten zenbatekoak kenduko zaizkie.

- En el caso de personas separadas o divorciadas, para el cálculo del importe total de los ingresos, se restarán los importes correspondientes a la pensión por manutención de hijos/as así como el importe de las cuotas hipotecarias mensuales.

- Diru-laguntzen onuradun diren Familia Unitateetan sartutako pertsona guztiak dirulaguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatu beharko dira, alokairu kontratua sinatu ostean,

- Todas las personas que forman parte de la Unidad Familiar del solicitante deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato,

eta datu hau diru-laguntza jaso baino lehen egiaztatu beharko dute. Halaber, kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titular ez diren pertsonak baleude etxebizitzan erroldatuta, kontratuaren titularrek erroldan baja-eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagun daitekeen epearen barruan.

- Gutxienez Familia Unitateko pertsona bat Getariako herrian erroldatua egon izana, gutxienez 5 urtetan, eskaera aurkezteko unean.

- Familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiek batera diru-sarreren muga, hauek baino txikiagoa izatea:
  — 28.000,00 euro gordin urtean (eskatzaile bakarra bada).
  — 35.000,00 euro gordin urtean (bi eskatzaile edo gehiago badira Familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiak).

| € GORDIN URTEAN | |
|---|---|
| 0-15.000 | %75 |
| 15.000,01-21.000 | %55 |
| 21.001-28.000 | %35 |
| 28.000-35.000 | %20 |

- Bizikidetza Unitateko kide guztiek Getariako Udaleko zerga, tasa, arbitrio eta zehapenen ordainketa guztiak eguneratuta izan behar dituzte.

- Onuradunaren eta errentatzailearen artean ezin izango da inolako familia-loturarik izan odolkidetasun edo ahaidetasuneko hirugarren mailaraino.

- Errenta banku-transferentzia bidez ordaintzea.

5. Onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan arabera, onuradunak honakoak ere bete beharko ditu: Ematearen oinarrian den helburu zehatza betetzeko erabiltzea diru-laguntza eta eskatzen zaien informazio osagarri guztia aurkeztu beharko diote Getariako Udalari.

Udal zerbitzuak beraganatu ahal izango dira, edota Udalaren batu baseak kontsultatu ahal izango dituzte diru-laguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

6. Etxebizitzaren baldintzak

Diruz lagunduko den etxebizitzak, Getariako udalerrian kokatuta egon beharko du derrigorrez eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du.

Edonola ere, etxebizitzak gutxienez ondorengo

cuestión que acreditarán con carácter previo a la percepción de la ayuda. Asimismo, en caso de que haya personas, no titulares de contrato, empadronadas en la vivienda con fecha anterior al inicio del contrato, los/as titular/es del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo de subvención.

- Que al menos una persona de la unidad Familiar conste haber estado empadronada en Getaria, durante al menos 5 años, en el momento de la solicitud.

- El límite de ingresos de la Unidad Familiar, en como conjunto, será inferior a:
  — 28.000,00 euros brutos anuales (si es un solicitante).
  — 35.000,00 euros brutos anuales (si son dos o más solicitantes de una misma Unidad Familiar).

| € BRUTOS AL AÑO | |
|---|---|
| 0-15.000 | %75 |
| 15.000,01-21.000 | %55 |
| 21.001-28.000 | %35 |
| 28.000-35.000 | %20 |

- Todos los miembros de la Unidad Convivencial tendrán que estar al corriente del pago de impuestos, tasas, arbitrios y sanciones del Ayuntamiento de Getaria.

- El beneficiario no tendrá vinculación familiar con el arrendador hasta el tercer grado de consanguinidad o afinidad.

- Abonar la renta mediante transferencia bancaria.

5. Obligaciones del beneficiario

Según lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones, son obligaciones del beneficiario: utilizar la subvención para el concreto destino para el que haya sido concedida y deber de aportar al Ayuntamiento de Getaria cuanta información complementaria les sea solicitada.

Los servicios municipales podrán acudir a inspeccionar, así como consultar las bases de datos municipales con la única finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos.

6. Requisitos de la vivienda

La vivienda objeto de ayuda deberá estar situada en el término municipal de Getaria y debe contar con la licencia de habitabilidad.

bizigarritasun baldintzak bete beharko ditu, hirigintza eta etxebizitza legeei jarraiki:
- Erabiltzeko moduan dagoen sukaldea, elikatze-iturri elektriko edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.
- Dutxa edo bainuontzia duen bainugela.
- Erabiltzeko egoeran dagoen ur bero sistema, bainugelara eta sukaldera zerbitzuarekin.
- Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volt-eko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.
- Iturriko ura izatea.
- Sare orokorrera isurketa duen saneamendua.
- Kalerako aireztatzea.

7. Baztertzeak

Ez dira diru-laguntzaren onuradun izango honako egoera hauetan aurkitzen diren eskaerak:
- Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak, tasatuak barne.
- Helburu turistikoa duena.
- Azpierrentamenduak.
- Logelen alokairuak (logela eskubidea).
- Etxebizitza gisa erabilitako bizigarritasun baimenik gabeko lokalak.
- Bizigune programaren barruan dauden alokairu etxebizitzak.
- Ez da onartuko urte bete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.
- Euren izaera edo helburua kontutan izanik, beste udal departamendu, administrazio edo erakunde autonomoren baten programei zuzendu beharrekoak.

8. Laguntzen zenbatekoa eta laguntza ematearen prozedura

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko alokairu prezioaren %75 izango da, gehienez hilean 250 euroko laguntza eskaera bakoitzeko eta gehienez 12 hilabeteko epealdi batetarako.

Etxebizitza partekatzen duten baina familia-unitate bat osatzen ez duten pertsona fisikoen eskaeren kasuan (adibidez, lagun arteko pisua), hileko 250 euroko laguntza osoa eskatzaileen artean proportzionalki banatuko da.

URTEKO DIRU SARRERAN ARABERA:

— 28.000,00 euro gordin urtean (eskatzaile bakarra bada).
— 35.000,00 euro gordin urtean (bi eskatzaile edo gehiago badira).

| € GORDIN URTEAN | |
|---|---|
| 0-15.000 | %75 |
| 15.000,01-21.000 | %55 |
| 21.001-28.000 | %35 |
| 28.000-35.000 | %20 |

En todo caso, la vivienda, deberá contar, al menos, con las siguientes condiciones de habitabilidad, según las leyes de urbanización y vivienda:
- Cocina en uso con fuente de alimentación eléctrica o gas adecuadamente equipada.
- Cuarto de baño con ducha o bañera.
- Sistema de agua caliente en funcionamiento con servicio al cuarto de baño y cocina.
- Instalación eléctrica en uso a 220 voltios con su boletín correspondiente.
- Disponer de agua corriente.
- Saneamiento con vertido a la red general.
- Ventilación a la calle.

7. Exclusiones

No serán beneficiarios de las ayudas las solicitudes donde se cumplan las siguientes circunstancias:
- Las viviendas de protección oficial de promoción pública, incluyendo las tasadas.
- Las que tengan un objetivo turístico.
- Los subarriendos.
- Los arrendamientos de habitaciones (derecho de habitación).
- Los locales sin permiso de habitabilidad usados como vivienda.
- Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.
- No se admiten contratos de duración inferiores a 1 año.
- Aquellos que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales, administraciones u organismos autónomos.

8. Cuantía y procedimiento de concesión de la ayuda

La cuantía de la subvención se establece en un máximo de 75% del precio del alquiler, con un límite máximo de 250 euros/mes por solicitud y durante 12 meses.

En caso de solicitudes de personas físicas que compartan vivienda (por ejemplo, una vivienda compartida entre amigos), pero no formen una unidad familiar, se prorrateará la ayuda total de 250 euros/mes entre los solicitantes.

SEGÚN LOS INGRESOS ANUALES:

— 28.000,00 euros brutos anuales (si es un solicitante).
— 35.000,00 euros brutos anuales (si son dos o más solicitantes).

| € BRUTOS AL AÑO | |
|---|---|
| 0-15.000 | %75 |
| 15.000,01-21.000 | %55 |
| 21.001-28.000 | %35 |
| 28.000-35.000 | %20 |

Behin betiko proposamen ebazpena onetsi ondoren, Alkatetzak prozedura ebatziko du ebazpen arrazoituaren bidez, jardunbidean erabakiaren funtsak adieraziko dira, oinarrietan ezarritakoarekin bat.

Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik balego.

Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da.

Diru kopurua diru laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten guztien artean banatuko da, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartuz gero, behin betiko zerrendetako diru kopuruetan aldaketak egon daitezke.

Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da, eskaerak aurkeztutako pertsonen zerrenda azalduko da, proposatutako diru-laguntza eta zenbatekoa proposatuz.

## 9. Eskaera aurkezteko tokia eta epea

Laguntza hauek jaso nahi dituzten herritarrek, deialdian jasotakoari jarraiki, Getariako Udalaren bulegoetan (Gudarien enparantza, 20808 Getaria) eskura daitekeen eskabide eredu ofiziala aurkeztu beharko dute. Udalaren web orrian ere eskuratu ahalko dute aipatutako eredua.

Udalak, herritarrari prozedura errazteko, hala dagokionean bere kabuz eskuratu ahalko du hainbat agiri, eskatzaileari eskatu gabe.

Eskabideak presentzialki Udaletxeko beheko solairuan edo elektronikoki (B@K-Q, NAN elektronikoa, Izenpe txartela, etab. Ziurtagiri digitala izan behar da) udal webgunetik www.getaria.eus eskatu ahalko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eskabide-orria, behar bezala beteta (www.getaria.eus ) eta sinatuta.

2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiria, pasaportea edo egoitza-txartelaren fotokopia. Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da. Azken agiri hori kasu guztietan aurkeztu beharko da senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.

Banandu edo dibortziatuta dauden pertsonen kasuan:

- Epai irmoaren fotokopia bat, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatiko mantenu

Una vez aprobada la propuesta de resolución definitiva, la Alcaldía resolverá el procedimiento mediante resolución motivada de conformidad con lo que dispongan las bases, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de su resolución.

La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso del resto de las solicitudes.

El plazo máximo para resolver y notificar será de seis meses desde el día en que se haga la solicitud.

La subvención se concederá entre todos los que hayan cumplido las condiciones; por lo tanto, en caso de que se aprueben las alegaciones presentadas ante la resolución de las listas provisionales, pueden haber cambios en las cantidades de las listas definitivas

Examinadas las alegaciones en su caso presentadas, se formulará propuesta de resolución definitiva que deberá expresar la relación de personas solicitantes para las que se propone la concesión de la subvención y su cuantía.

## 9. Lugar y plazo de presentación de instancia

Quienes deseen optar a estas ayudas deberán presentar una solicitud cumplimentada de acuerdo con el modelo oficial existente en las oficinas del Ayuntamiento de Getaria (Gudarien Enparantza, 20808 Getaria). También podrán obtener dicho modelo en la web del ayuntamiento.

El Ayuntamiento podrá, en su caso, obtener de oficio diversas documentaciones, sin solicitarla al solicitante, con el fin de facilitar el prodimiento al/ a la ciudadano/a.

Las solicitudes podrán solicitarse presencialmente en la planta baja del Ayuntamiento o electrónicamente (con certificado electrónico de B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta Izenpe, etc.) desde la página web municipal www.getaria.eus

Documentación acreditativa:

1.Impreso de solicitud debidamente cumplimentado (www.getaria.eus) y firmado.

2.Fotocopia del DNI, pasaporte o tarjeta de residencia, de cada una de las personas demandantes de la ayuda. En el caso de existir menores de edad, se aportará, además, fotocopia del Libro de Familia. Este último documento será preciso, en todo caso, para acreditar la filiación en caso de alegar descendencia.

En el caso de solicitantes separados/as o divorciados/as:

- Fotocopia de la sentencia en firme donde se estipule la pensión por manutención de hijos/as.

pertsona. Mantenu pentsioaren ordainketaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.
- Hipoteka kargei dagozkien hileroko ordainketen ziurtagiriak.

3. Eskatzailearen eta Familia Unitatearen errolda agiria (eskaera egiterakoan udalean bertan eskatu ahalko da).

4. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa. Maizterrak bat baino gehiago badira, eta kontratuan ez bada zehazten maizter bakoitzak ordaindu beharreko zenbatekoa, erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko da, kopuru horiek zehaztuz.

5. Diru laguntza ordaintzeko erabiliko den Kontu Korrontearen titularitatea (laguntzaren eskatzaileren berdina) egiaztatzen duen agiria.

6. Estatu mailan etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, laguntza eskatzen duten 18 urtetik gorako kide guztiena, jabetza erregistroak igorria, laguntza eskaera eman baino gehienez 15 egun lehenagokoa.

7. Etxebizitza baten titular-kide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:
- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.
- Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.
- Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.

8.Diru-sarrerak frogatzeko agiriak:

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena, eskaera-dataren aurreko azken zergaldiari dagokiona. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenari, behar izanez gero, kontribuziorik gabeko prestazioen ziurtagiria erantsiko zaio.
– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena egin behar ez dutenek, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:
  – Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eginiko lan-bizitzaren agiria, data eguneratua duena: https://labur.eus/JkuRh
  – Baldin badagokio, PFEZ atxikipenen ziurtagiri ofiziala (2020.urteko 10-T dokumentua, lan egindako zentruetan eskatuta).
  – Ikerketarako beka eta/edo diru-laguntzen kasuan, hori jaso dutela ziurtatzen duen agiria.
  - Ekitaldi horretan (eskaera hau aurkezteko unean betetako azken zerga- ekitaldia) PFEZ aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria Foru Ogasunak emana.

Hay que presentar los justificantes de pago de la pensión por manutención.
- Justificante de pago del importe de las cargas hipotecarias mensuales existentes.

3. Certificado de empadronamiento del solicitante y de la unidad familiar (se podrá solicitar en el momento de adquirir la ayuda en la oficina municipal).

4. Copia del contrato de arrendamiento de la vivienda, vigente y abarcando el período subvencionable. En el caso de ser varias las personas arrendatarias y no constar en el contrato el importe de la renta que corresponde abonar a cada una de ellas individualmente, se aportará declaración responsable en la que figure dicho importe individual.

5. Documento que acredite la titularidad de la cuenta (del mismo que solicite la ayuda) en la que se ingresará la ayuda correspondiente.

6. Certificado de no ser propietario/a de vivienda a nivel estatal, emitido por el registro de la propiedad como máximo 15 días antes de la fecha de entrega de la solicitud de ayudas, de todas las personas solicitantes de la ayuda mayores de 18 años.

7. Además, en caso de ser cotitular de vivienda será necesaria la aportación:
- En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de partición.
- En caso de donación, escritura de donación.
- En ambos casos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.

8. Documentación acreditativa de los ingresos:
– Declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF) correspondiente al periodo impositivo vencido inmediatamente anterior a la fecha de la solicitud. A la declaración del IRPF se adjuntará, en su caso, certificado de la prestación no contributivas.
– Las personas que no tengan la obligación de realizar la declaración del IRPF, deberán aportar la siguiente documentación:
  – Vida laboral expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social, con fecha actualizada: https://labur.eus/JkuRh
  – Si procediera Certificado oficial por retenciones del IRPF (documento 10T de las empresas que ha trabajado del año 2020).
  – En caso de becas o ayudas para la investigación, certificado que lo justifique.
  - Certificado de la Hacienda Foral acreditativa de la no obligatoriedad de presentación de la declaración del IRPF en dicho ejercicio (último ejercicio fiscal vencido en el momento de presentación de la presente solicitud).

- Autonomoen kasuan kontzeptu guztiengatik ekitaldi horretan jasotako diru sarrera gordin guztiei buruzko dokumentua, enpresak edo enplegu emaileak emandakoa.

9. Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak betetzerakoan egunera dagoela egiaztatzea: https://labur.eus/YRXQG .

10. Zinpeko aitorpena, errentamenduko babes publikoko etxebizitzarik ez duela eta errenta, prestazio edota diru-laguntza bateraezinik jasotzen ez duela esanez (eskaera orrian betetzen da).

11.Orokorrean edonolako diru-laguntzak jasotzea eragozten duen inolako egoeratan ez dagoela , eta bereziki oinarri hauen baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena sinatuta. Adierazpen horrek honakoak adieraziko ditu: alokairuko etxebizitzan bizi d(ir)en edo biziko d(ir)en pertsona(k), deialdiaren baldintza zehatz hauek guztiak betetzen dituztela (eskaera orrian betetzen da).

12. Banku-transferentzia bidez errenta ordaindu izana ziurtatzen duen agiria. Onartuko da alokairu osoaren ordainagiri bakarra pertsona desberdinak baldin badaude partekatzen alokairu berbera, betiere alokairuaren ordainagiria eskatzaile guztien izenean badago.

13. Etxebizitzaren errentatzailearekin edo haren Familia unitateko kideren batekin odolkidetasun edo ahaidetasunezko hirugarren mailarainoko familia-loturarik ez dagoenaren erantzukizunpeko adierazpena.

14. Diru-laguntza emateko bete-beharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

**Eskatzaileek berariazko baimena eman beharko diete Getariako Udaleko udal zerbitzuei, eskumena duten erakundeek laguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzeko datuak bildu ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez.**

10. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten. Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, 39/2015

- En caso de trabajadores/as autonomos/as por cuenta ajena, documento expedido por la empresa o persona empleadora sobre la totalidad de los ingresos brutos percibidos por todos los conceptos, correspondiente a dicho ejercicio.

9. Acreditación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias de la Seguridad Social: https://labur.eus/YRXQG .

10.Declaración responsable de no disfrutar de una vivienda de protección pública en arrendamiento, ni percibir rentas, prestaciones o ayudas incompatibles (se rellena en la hoja de inscripción).

11.Declaración responsable en el que se haga constar que el o la solicitante no está incurso en ninguna circunstancia que le impida recibir subvenciones y que cumple los requisitos establecidos en estas bases. Dicha declaración deberá hacer constar: persona o personas que habiten o vayan a habitar en la vivienda objeto de alquiler; y que cumplan los requisitos específicos de la convocatoria (se rellena en la hoja de inscripción).

12. Justificante del abono de la renta mediante transferencia bancaria. Cada persona tendrá que presentar su recibo de pago de alquiler mensual. Se admitirá un recibo por el importe total del alquiler en el caso de que haya varias personas compartiendo la vivienda, siempre que el recibo esté a nombre de todos los solicitantes.

13. Declaración responsable de no existir vínculos familiares hasta el tercer grado de consanguineidad o afinidad con la persona arrendadora de la vivienda o con cualquiera de los miembros de la unidad convivencial de la persona arrendadora.

14. Cualquier otra documentación que pueda tenerse según los requisitos de concesión de la ayuda.

**Las personas solicitantes deberán autorizar expresamente a los servicios municipales del Ayuntamiento de Getaria a recabar de los organismos competentes los datos necesarios para constatar el cumplimiento de todas las condiciones requeridas para ser beneficiario/a de las ayudas, a tenor de lo exigido en el artículo 6 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.**

10. Subsanación de defectos.

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a los interesados un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados. Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa

Legeko 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

11. Diru-laguntzaren ordainketa.

Onartutako diru-laguntza izaera pertsonalekoa da.

Alokairu partekatua denean, kontratuan ez bada zehazten zenbat ordainduko duen pertsona bakoitzak, bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean. Beste era batera izango balitz, zinpeko adierazpen bat sinatu beharko dute kontratuaren titular guztiek adierazteko bakoitzak zenbat ordainduko duen, eta kopuru horrek bat egin beharko du justifikatzeko ekarriko duen ordainagiriarekin.

Etxebizitza bakoitzeko eskatzaile bi edo gehiago daudenean eta laguntzarako eskubidea dutenean, ordainketa eskatzaile bakoitzaren bankuko kontuan egingo da, betiere, pertsona bakoitzak Udalari aurkezten badio dagokion alokairuaren zatiaren ordainagiria.

Diru-laguntza ordainketa bakarrean edo hainbat zatitan zatikatu ahalko da, beti ere eskaera eta agiri justifikagarriak aurkeztu ondoren:

- Laguntza eskaerak eta ordainketak urte horretako urtarrilaren lehen hamabostaldian eta uztaileko lehen hamabostaldian egin ahalko da.
- Ordainketa horien zenbatekoa, data horretara arte urte horretan egiaztatutako alokairu gastuen araberako proportzioan egingo da.

12. Beste diru- laguntzekin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarri ezinak izango dira.

Laguntza hauen eskatzaile gisa, bereziki baztertuta daude:
- Bizigune Programaren bitartez etxebizitza alokatuta duten gazteak.
- Epe berdinagatik Eusko Jaurlaritzako Gaztelagun diru-laguntza jasotzea dagokienak.
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta administrazio publikoen gizarteratze-politiketatik eratorritako beste edozein errenta jasotzea.
– Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO), etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE), udalak ematen dituen diru-laguntzak edo alokairuko gastuak ordaintzen laguntzen duten beste administrazio edo erakunde publiko batzuen edozein diru-laguntza jasotzea.
– Gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) jasotzea, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikuluaren 2.a) apartatuan aipatutako alokairu-

resolución que será dictada en los términos del artículo 68 de la Ley 39/2015.

11. Abono de las ayudas.

La subvención reconocida es de carácter personal.

En caso de arrendamiento compartido, cuando en el contrato no se especifique el importe a pagar por cada persona, el cálculo de la ayuda por persona se realizará dividiendo la renta mensual total de la vivienda, entre el número total de titulares del contrato. Si fuera de otra forma, las personas titulares del contrato deberán firmar una declaración responsable, indicando la cantidad a pagar cada una, debiendo coincidir con el justificante de pago que presente cada una.

Cuando existan dos o más personas solicitantes por vivienda con derecho a ayuda, el abono se realizará en la cuenta de cada solicitante, siempre que cada solicitante presente al Ayuntamiento su correspondiente justificante de pago del alquiler.

El abono de la subvención se podrá realizar fraccionado en uno o varios pagos, tras la solicitud y presentación de documentación justificativa:

- La solicitud y los pagos correspondientes se realizará durante la primera quincena de enero y durante la primera quincena de julio del año en curso.
- La cuantía de estos pagos será proporcional a los gastos de alquiler que se hayan justificado hasta esa fecha del año en curso.

12. Concurrencia con otras ayudas diferentes.

Las ayudas concedidas de acuerdo con estas bases no serán compatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin.

Se excluye expresamente como demandantes de dichas ayudas:
- A los y las jóvenes que dispongan de una vivienda alquilada a través del Programa Bizigune.
- A quienes les corresponden las ayudas Gaztelagun del Gobierno Vasco por el mismo plazo.
– A perceptores de la renta de garantía de ingresos (RGI) y cualesquiera otras rentas que provengan de políticas de inserción social de las Administraciones Públicas.
– A perceptores de la prestación complementaria de vivienda (PCV), la prestación económica de vivienda (PEV) las ayudas municipales o de cualesquiera otras Administraciones o entidades Públicas que contribuyan a cubrir los gastos de alquiler.
- A perceptores de las ayudas de emergencia social (AES) relacionadas con los gastos de alquiler citados en el apartado 2.a del artículo 44 de la Ley 18/2008 de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos e

gastuei loturik daudenak.

13. Publizitatea

Getariako Udalaren web orrian eta iragarki-oholean argitaratuko dira emandako diru-laguntzen zerrenda, horiek jasoko dituzten onuradunak eta jasotako diru-kopuruak.

Diru-laguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta diru-laguntzak argitaratze hori pertsona fisikoen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean, eta diru-laguntza hori arautzen duten oinarrietan horrela jasota dagoenean.

14. Errekurtsoak.

Oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean hura onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien epaitegiaren aurrean.

Era berean, diru-laguntzak emateko behin betiko ebazpenaren kontra berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organu beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik kontatuta.

15. Oinarrien interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren harira edozein zalantza sortuz gero, diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio horri buruz erabakitzea.

16. Hizkuntza oharra

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanez gero, euskarazko testuak izango du balioa.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honek indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunera.

Inclusión Social.

13. Publicidad

La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las personas beneficiarias y sus cuantías, serán publicadas en la página web del Ayuntamiento de Getaria y en el tablón de anuncios del mismo.

No se publicarán los datos de las subvenciones cuando su publicación, en razón del objeto de la subvención, pueda ser contraria al respeto y salvaguarda del honor, la intimidad personal y familiar de las personas físicas y así se recoja en las bases reguladoras de la concreta subvención.

14. Recursos.

Contra las presentes bases podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente, o impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-administrativo.

Asimismo, la resolución definitiva de la concesión de las subvenciones podrá ser objeto de recurso de reposición ante el órgano que dictó la misma en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

15. Interpretación de bases

Cualquier duda que pueda surgir en torno a la interpretación de estas bases, será resuelta por el órgano encargado de conceder la subvención.

16. Nota lingüística

En el caso de que se detecten contradicciones o incoherencias entre los textos en euskera y castellano, prevalecerá el texto en euskera.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

La presente normativa se mantendrá vigente hasta su modificación o derogación.

DISPOSICIÓN FINAL

Las presentes bases entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

| **Sinatzailea:** | ALKATEAK Haritz Alberdi Arrillaga |
|---|---|

Getariako Udala

**Esp.:** 2021IDDE0002

| | |
|---|---|
| Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara:<br>**https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/39/AAAA20ZWL.y8QU** | |